

Vitoria-Gasteizerako nekazaritzako elikagai-estrategia jasangarri baten bidean

Parte hartzeko prozesua

Ekintza Planerako jarraibideak zehazteko lantegia

ONDORIOREN AGIRIA



Hirugarren eztabaida-tailerra

Debate-tailer presentziala non eta noiz egin den:

Europa Jauregia
Vitoria-Gasteiz

2016ko ekainaren 14a, asteartea



Centro
de Estudios Ambientales

CEA

Ingurugiro
Gaietarako Ikastegia

Tailerra antolatzeko talde tekniko arduraduna

Diseinua eta koordinazio teknikoa:



*Carlos Verdaguer
Gregorio Ballesteros*

Tailerraren dinamizazioa eta bideratzea:



*Iciar Montejo
Zorione Aierbe*

Prozesuaren toki-koordinazioa:



Centro
de Estudios Ambientales

CEA

Ingurugiro
Gaietarako Ikastegia

María de Santiago
Roberto González Argote

Tailerrera bertaratu direnak

Alza Antton
Andrés Orive Luis
Arans López, Víctor
Arbe Uxue
Auzmendi Sugoi
Bezares Zuriñe
Briñas Vicente
Buendía Aitor
Calvo Liciaga Pedro
Cantero Susana
Chaves Javier
Canto, Arantza del
Dorronsoro Carlos
Escudero Juan Carlos
Fernandez Labastida, Ángel
Fernández de Pinedo Kike
González Argote Roberto
Gonzalez Sanchez, David
Gotxaki Ana
Gotxaki Íñigo
Ibarrondo Mónica
Izar de la Fuente César
Jalón Idoia
Lacuesta, Maite
López Castro Luis
López de Munain Natividad
Marrero Xabier
Mauleón Joserra
Miguel Aitor
Ochoa de Aspuru Eduardo
Ocio Gurutze
Ortún Edurne
Pérez Bengoa Ana Isabel
Rosales Beatriz
Ruiz de Infante Jon
Santiago María de
Santxo Usua
Uranga Patricia
Urarte Eduardo
Uriarte Marian
Vega Carmen de

AURKIBIDEA

Ekintza Planerako jarraibideak zehazteko lantegia.....	9
1. Aurkezpena.....	9
2. Lantegiaren eta eztabaidaren garapena.....	9
2.1. Lantegiaren helburuak.....	9
2.2. Parte-hartzaileen kopurua eta ezaugarriak.....	10
2.3. Lantegiaren metodologia eta garapena.....	10
3. Taldekako lan-saioa: berariazko neurriak sei helburu estrategikotarako	12
3.1. 1. TALDEA: ELIKADURA POBREZIA.....	15
3.2. 2. TALDEA: URA ETA ENERGIA.....	19
3.3. 3. TALDEA: GIZARTE AITORPENA	23
3.1. 4. TALDEA: ELIKADURA IKERKETA ETA TRAZABILITATEA.....	27
4. Amaierako osoko bilkura.....	31
4.1. Teknikari taldearen proposamena: helburuak batzea	32
4.2. Eztabaida eta ondorioak: estrategiaranzko urratsak.....	36

Gasteizerako nekazaritzako elikagaien estrategia iraunkor baterantz

Parte hartzeko prozesua

Ekintza Planerako jarraibideak zehazteko lantegia_**LABURPEN-AGIRIA**

Ekintza Planerako jarraibideak zehazteko lantegia

1. Aurkezpena

Joan zen **ekainaren 14an** egin zen nekazaritzako elikagaien strategiaren partaidetza-prozesuaren **bigarren faseari** zegokion azken **eztabaida-lantegia, Europa jauregian**. Lantegian aurreratu genuenez, udako atsedenaldiaren ondoren aurkeztuko da **estrategiaren dokumentua**, lantegietan landutakoaren emaitzen multzotik abiatuta.

Bigarren fasea ixteko lantegian, **partaidetza-prozesu osoan zehar garatutako lana** izan da abiapuntua, eta estrategia landu eta martxan jartzeko bidean **aurrera egiteko oinarriak** ezarri dira.

2. Lantegiaren eta eztabaidaren garapena

2.1. Lantegiaren helburuak

Fasea ixteko lantegian helburu hauek planteatu ziren:

- **Prozesu osoan** aurrez aurreko lantegi eta mahaietan zein online inkestetan **garatutako lana laburbiltzeko balantzea** aurkeztea.
- Martxoko bigarren lantegitik ateratako **21 helburuak** oinarritzat hartuz apirilean eta maiatzean egindako **hiru mahai sektorialetan berariazko neurriak garatzeko egin den lana osatzea**.
- **Talde teknikoaren proposamena aurkeztea: 21 helburuak** Ekintza Planerako jarraibide gisa batzea.
- Nekazaritzako elikagaien estrategia gauzatzeko **aurrerantzean eman beharreko urratsak taldean identifikatzea**, strategiaren ardura duten udal ordezkariak **proposatutako egutegia** oinarritzat hartuz.

2.2. Parte-hartzaileen kopurua eta ezaugarriak

Lantegian guztira **42 pertsonak** hartu dute parte, 23 gizonak eta 19 emakumek. Horietatik **bakarrik 6 ziren lehen aldiz parte hartzen zutenak** prozesuarekin lotutako lantegi edo mahai batean; gainerako **36ak, berriz**, gutxienez aurreko bi bileratan egonak ziren.

Profilarri dagokionez, aurreko lantegietan bezala, parte-hartzaileak **heterogeneoak eta askotarikoak** izan dira, eta produkzio-faseko ordezkarien presentzia nahiko txikia izan da. Azken horren arrazoia lantegia egiteko data izan daiteke, nekazaritzan lan handia dagoen garai batean egin baitzen.

2.3. Lantegiaren metodologia eta garapena

Lantegirako ezarritako helburuei jarraituz, eta aurkezpen ofizialaren ondoren, talde teknikoak **prozesuaren balantze sintetikoa** aurkeztu zien parte-hartzaileei, zeinak alderdi kualitatiboak eta kuantitatiboak biltzen baititu.

Balantzearen arabera, prozesuaren oinarrizko ildoak datu hauetan laburbildu daitezke:

- Orotara **bi lantegi** (bakoitzean bi saio), **hiru mahai** sektorial eta **hiru inkesta** (online) egin dira, azken lantegia eta une hartan egiten ari zen inkesta kontatu gabe.
- Guztira **bederatzi dokumentu** landu dira: diagnostikoa egiteko eta lantegi, mahai eta inkesten emaitzak jakinaraztekoak, gehi agiri hau bera eta prozesuaren sintesia egiteko lantzen ari den beste bat.
- Orotara **100 parte-hartzaile (53 gizon eta 47 emakume)**, eta **183 asistentzia** aurrez aurreko lantegietan; **45 pertsona bi ekitaldi edo gehiagotara** joan dira, eta **24 pertsona, hiru edo gehiagotara**. Batez beste **asistentzia pertsona bakoitzeko bi ekitaldi** izan da, eta **ekitaldi bakoitzeko, 37 pertsona**. Azken lantegian, beraz, batez besteko asistentziari eutsi zaio.

Emaitzei dagokienez, hauek dira garrantzitsuenak **edukiari** begira:

- **Aurretiazko diagnostikoarekin** lotutako **balioespenak, iradokizunak eta zuzenketak** (1. lantegian eta 1. inkestan lortutakoak).

- **Aurretiazko diagnostikoan proposatzen ziren 61 helburuetatik 2. inkestaren bidez aukeratutako nekazaritzako elikagaien alorrerako 25 iraunkortasun-helburuak.**
- 2. lantegian landutako **21 helburu estrategikoak.**
- **21 helburuen** lehenespen bikoitza, 2. lantegiaren eta 3. inkestaren bitartez.
- **21 helburuetako 14ri** buruzko **sektorekako berariazko neurriak**, 1., 2. eta 3. eztabaida-mahai sektorialetan landuak.

Emaitza zenbakarri horietaz gain, bestelako emaitzak ere aipatu ziren, "**ukiezinak**" izan arren besteak bezain garrantzitsuak, eta parte-hartzaileek ekintzen ebaluazio-inkestetan nabarmendu zituztenak: **komunikatzeko eta iritziak trukatzeko espazioak sortzeko aukera** ematea, eta neurri handi batean **sareak sortzen lagundu dezaketen kontaktuak egitea.**

Prozesuaren balantzea aurkeztu ostean, **taldetan garatu beharreko lana proposatu zen**: hasierako 21 helburuen zerrendatik denbora faltagatik sektorekako mahaietan garatu gabe geratu ziren **zazpi helburuetako seirentzat (7, 12, 14, 18, 19 eta 21 zenbakia zutenak) berariazko neurriak** lantzea. Huts baten erruz, lan saio horretan zazpigarren helburu bat falta izan zen **-16. helburua: ohitura arduratsuak-**, saiorako azken lan-proposamenean sartu gabe geratu baitzen.

Garrantzitsua da aipatzea mahaietako **parte-hartzaileek berek** aurretik adierazia zutela helburuak zehazteko lana osatzeko beharra.

Lan-talde hauek osatu ziren egitekoari heltzeko:

- **1. TALDEA: ELIKADURA POBREZIA, 7. helbururako (elikadura pobrezia)** berariazko neurriak garatzeko.
- **2. TALDEA: URA ETA ENERGIA, 14. helburua (uraren kudeaketa) eta 18. helburua (energia)** lantzeko.
- **3. TALDEA: GIZARTE AITORPENA, 19. helburua (onarpen soziala)** aztertzeko.
- **4. TALDEA: TRAZABILITATEA ETA ELIKAGAIEN IKERKETA, 12. helburua (elikagaien ikerketa) eta 21. helburua (trazabilitatea)** lortzeko neurriak garatzeko.

Talde horiek egindako lana agiri honetako **3. atalean** azaltzen da zehatzago eta, hartara, sektorekako mahaietan lortutako emaitzak osatzen dira.

Taldetako lanaren ondoren atsedenaldi laburra egin zen eta bertan **Slow Food Araba** elkarteak **mokadu bat** eskaini zuen, bikain landutako **tokiko produktuak** oinarri hartuta.

Parte hartzeko lan-saioa bukatzeko, **amaierako osoko bilkuran** landu ziren **lantegiaren bi azken helburuak**, alegia, **jarraibideen proposamen bat** aurkeztea eta **aurrerantzean eman beharreko pausuak** identifikatzea, estrategia eraikitzen jarraitzeko.

Lehenengo helburuari dagokionez, **21 helburuak hamar jarraibide estrategikotan batzeko** proposamena egin zuen talde teknikoak, hartara **Gasteizerako Nekazaritzako Elikagaien Dekalogo**a osatuz, prozesu osoan sortutako material ugariarekin lan egitea erraztuko duelakoan. Aurkezpenaren ondoren, **eztabaida** izan zen, zeinaren xehetasunak eta emaitza agiri honetako **4. atalean** islatu baitira; laburbilduz, parte-hartzaileek uste izan zuten **21 helburu bereizien zerrendari eutsi** behar zaiola.

Lantegiaren bigarren helburua, hau da, **eman beharreko pausuak** zehaztea, jarraibideak aurkeztu osteko eztabaidan bete zen. Udal taldearen proposamenak eta horien inguruko eztabaida ere agiri honen **4. atalean** jaso dira.

Nabarmendu beharreko alderdien artean nekazaritzako elikagaien strategiaren **dokumentua** -lantegiaren emaitza guztiak oinarritzat hartuz landutakoa- **irailean aurkezteko proposamena** dugu; bestetik, parte-hartzaileek prozesuaren jarraipen organoren bat sortu beharra zegoela adierazi zuten, alegia, **Gasteizko nekazaritzako elikagaien batzorde edo kontseilua**.

3. Taldekako lan-saioa: berariazko neurriak sei helburu estrategikotarako

Lantegiaren muina osatu duen taldekako lan-saioa **sektore mahaietan** garatutako **lanaren jarraipen eta amaiera** gisa planteatu da.

Mahai haien **helburu nagusia** zen **bigarren lantegian** lortutako **21 helburuen zerrenda** nolabait "lurreratzea", hau da, **helburu bakoitzaren** formulazio

orokorra **berariazko neurri multzo batera** ekartzea, **nola gauzatu** behar zen, eta ahal zela, **zein aktorek** izan behar zuten garatzeko **ardura** zehaztuz.

Lana erraztearren, mahaiak **sektoreka** antolatu ziren, hau da, **nekazaritzako elikagaien katearen faseen** arabera: ekoizpena, eraldaketa-banaketa-merkataritza eta kontsumoa-metabolismoa. **Metodologia** hau erabili zen: hasierako 21 helburuko zerrendatik helburu kopuru mugatu bat (4-6 bitartekoa) **hautatu** eta ondoren **xeheki garatu**, neurriak zehaztuz.

Logikoki, mahai bakoitzean zeuden parte-hartzaileen **profil sektorialak** eragina izan zuen helburuak hautatzerakoan, beraz, mahai bakoitzak **bere fasearekin lotutako helburuak** aztertu zituen, eta beste fase batzuekin lotutakoak edo zeharkako izaera zutenak bazter samar utzi zituzten. Taula honetan zehazten da zein helburu landu zen sektore-mahai bakoitzean.

M1: Produksioa		M2: Kontsumoa eta metabolismoa		M3: Banaketa eta merkaturatzea	
Helburua	Gaia	Helburua	Gaia	Helburua	Gaia
3 Lur bankuak 4 Arauak berrikustea 6 Agroekologiaren sustapena 8 Lurzoruaren babesa 17 Landetxe mistoak	Produksioa	1 Jantoki publikoak 5 Gizartearen eskaera 20 Egitasmoak sustatzea	Kontsumoa	2 Ekimen sareak 10 Hirigintza 11 Saltoki txikiak 13 Hornikuntza publikoa	Banaketa eta merkaturatzea
9 Biodibertsitatea		15 Hondakinen kudeaketa		Zeharkakoa	

Sektorekako ikuspegia eta **denbora-muga** logikoak direla eta, **zazpi helburu** - hainbat gaitakoak- neurriak ezartzeko lan horretatik kanpo geratu ziren:

Helburua	Gaia
19 Gizarte aitortzea	Produksioa
7 Elikadura pobrezia	Kontsumoa
21 Trazabilitatea	Banaketa eta merkaturatzea
12 Elikadura ikerketa 14 Uraren kudeaketa 18 Energia	Zeharkakoa

Parte-hartzaileek berek azpimarratu zutenez, horien inguruko neurriak lantzea lehentasunezkoztat jo ez bazuten ere **horrek ez zuen esan nahi interesik ez zutenik**, beraz, **gainerako 15 helburuak bezain sakon aztertzea egoki zela** adierazi zuten.

Lan horixe proposatu zen lantegi honetarako, **lau tan-talderen** bitartez: **lehen** taldeak **elikadura pobrezia** aztertu du; **bigarren** taldeak, **uraren eta energiaren kudeaketa**; **hiugarrenak**, **aitorpen soziala** lortzeko neurriak, eta **laugarrenak**, **trazabilitatea** eta **elikagaien ikerketa**.

Aipatu beharra dago **16. helburua (ohitura arduratsuak)**, kontsumo faseari zegokiona eta **1. taldeak** aztertu beharrekoa, azkenean **saiotik kanpo** geratu zela teknikari taldeko koordinatzailearen **programazio-akats** bat zela kausa; horrenbestez, ez da guztiz bete 21 helburuetarako neurriak zehazteko asmoa. Hori dela eta, helburuetarako neurriak ezartzeko lanean sortutako desfasea estrategia lantzeko prozesuaren **hurrengo fasean** heldu beharreko **zereginen artean** geratu da.

Orobat aipatu beharra dago lan-saio honetan, bigarren eta hirugarren mahaietan ez bezala, batez ere **denbora-mugen eraginez** hainbat helbururi heltzeko saio sakona egiteko astirik ez zegoenez, lan-taldeek erabaki zutela **neurrien identifikazioa lehenestea** horiek sustatu behar dituzten **aktoreen identifikazioaren** aldean, beraz, hori ere hurrengo faserako **landu gabeko zereginen artean** geratu da.

Jarraian, lau talde horien **hausnarketa eta eztabaida** lanaren **emaitza xehatuak** aurkeztuko ditugu.

3.1. 1. TALDEA: ELIKADURA POBREZIA

1. lan-taldean 11 pertsonak hartu dute parte, eta **7. helburua –kontsumo eta bazterketa fasekoa–** aztertu dute:

Uxue Arbe	Zuriñe Bezares
Susana Cantero	Ana Gotxaki
Iñigo Gotxaki	Natividad López de Munáin
Gurutze Ocio	Ana Isabel Pérez Bengoa
Usua Santxo	Eduardo Urarte
Marian Uriarte	

Bideratzailea: *Zorione Aierbe*

7. helburua. ELIKADURA POBREZIA: Elikadura pobrezia desagerraraztea eta xahuketa eragozte.

Aurreiazko gogoetak:

Abiapuntu gisa, taldeak **elikadura pobreziaren kontzeptua** mugatu du, Estrategiaren ikuspuntutik:

Testuinguru honetan elikadura pobreziaz ari garenean, hauxe dugu gogoan:

- **Baliabiderik ez duten pertsonak, elikagai fresko eta kalitatekoak eskuratzetik ez dutenak:** batzuetan ezin dute horrelakorik eskuratu jantoki sozialetan, edo bonuren bat jasotzen badute agian nahiago dituzte aurrez prestatutako jakiak freskoak baino...
- Batetik **elikagai soberakinak** daude eta, bestetik, jatekoa egunero lortzeko zailtasunak dituzten pertsonak.
- Hona benetako adibide bat, Estrategiatik kanpo geratu behar ez lukeena: jan ahal izateko, goizero supermerkatu kate bateko edukiontzia ateratzeko zain egoten diren pertsonak. Pertsona horien zailtasunak elikagai fresko eta kalitatekoak eskuratzeko baino haratago doaz.

Hori kontuan hartuz, hemendik 8-10 urtera lortu nahiko genukeen **helburu** bat zehaztu dugu: **“Gasteizko biztanleriak kalitate-irizpide minimo batzuk betetzen dituen elikadura izatea –kalitatea bertako eta sasoiko elikadura eta elikadura iraunkorra dela jota–.**

Neurri zehatzak

7. helburua: Elikadura pobrezia

1. Hirian autokontsumorako landaketak sortzea:

- **Baliabide gutxi duten pertsonen elikagai fresko eta kalitatekoak eskuratzerik izan dezaten.**
- Horretarako **lurrez eta espazioaz** hornitzearekin batera, **informazioa eta prestakuntza** berezia eman beharko da.
- **Ekintza-multzo** baten barruko neurritzat jotzen da, baratze baten azalera ez bailitzateke nahikoa autohornikuntza bermatzeko.

2. Araudia egokitzeko aukerak aztertzea, autokontsumorako hiri baratzeetan animalia txikiak –hegaztiak, untxiak– eduki ahal izateko.

- Horrek **hiltegi baten beharra** –agian zerbitzu mugikor bat– eta auzokoei enbarazu ez egiteko formulak aztertzea dakar berekin. Esate baterako, **espazio komun txiki** gisa planteatu daiteke agian.
- (OHARRA: *estatu mailan dagoeneko lantzen eta aztertzen ari den gaia da*).

7. helburua: Elikadura pobrezia

3. Proiektu sozial globalagoak, lurra lantzeko espazioak barne hartzen dituztenak:

- **Lehen sektorea** eta elikadura **iraunkorra sustatzeko** proiektuak, ikuspegi soziala dutenak.
- **Hirian lehendik ditugun baliabideak** erabiliz, bakarrik batu-konektatu egin behar baitira. Adibidez: Cáritasek baratzeak ditu, gizarteratze-enpresa batek ostalaritza lantegi bat... pieza solteak dira, batzean zentzua hartzen dutenak.
- **Aurreko ekimenetan inspiratuak**, adibidez, Cáritasek Brigidatarren komentuan garatutakoa: nekazaritza ekoizpenerako unitate bat sortu da, zeinean 8 pertsona ari baitira, Arkautiko Eskolaren laguntzarekin.
- Edonola ere, horrelako proiektuak **autokontsumorako hiri baratzeen osagarritzat** jotzen dira, profil eta behar ezberdinetako taldeei zuzendutakoak izan baitaitezke.

4. Jantoki komunitarioak sortzea, tokiko produktu fresko eta kalitatekoak eskaintzen dituztenak, soberakinak murrizteko programa batekin lotuta.

- Gasteizko **elikagaien katean soberakinak murrizteak** -bereziki, udal kudeaketaren mende dauden alorretan- hondakin horien kudeaketa-gastuak murriztea ekarriko luke. Hartara, aurrezten dena jantoki komunitarioak sortzen inbertitu liteke.
- Beste gakoetako bat **jantokiak tokiko produktu fresko eta kalitatekoen hornitzea** da, eta neurri batean baratze komunitarioetatik hornitu litezke. Horrek jantoki komunitarioen "irudia" aldatzen lagunduko luke, "soberakinez" edo "hondarrez" hornitzen diren zerbitzutzat jo bailitezke.
- Gainera, garrantzitsua da jantoki horietan **elikadura hezkuntza** lantzea.

7. helburua: Elikadura pobrezia

5. Udalaren elikadura-bonu sozialen sistema nekazaritzako elikagaien strategiaren irizpide eta helburuetara egokitzea.

- **Bonu** horiek, gaur egun, supermerkatu kate batean erabil daitezke; neurri horren bidez, aldiz, **tokiko janari freskoak eskuratzeko** erabil litezke, neurri batean behintzat, eta ahal dela, hirian dauden enpresa sozialetan.

6. Elikadura hezkuntzako berariazko programa bat proposatzea, elikadura pobreziari aurre egiteko tresna gisa.

7. Nekazaritzako elikagaien beste estrategia batzuetan elikadura pobreziaren kontra borrokatzeko jardunbide egokiak bilatzea.

- Baliagarriak direla erakutsi duten **jarduera ildoak eta neurriak** eta kontuan hartu beharreko ikaskuntzak **identifikatzeko**.
- (OHARRA: *ohartarazi da elikadura pobrezia izan zela Estatu Batuetan nekazaritzako elikagaien estrategien bidez planteatzen hasi zen lehen gaietako bat, eta interesgarria litzatekeela egindako bidearen ondorioak ateratzea*)

3.2. 2. TALDEA: URA ETA ENERGIA

2. lan-taldean **14. eta 18. helburuak** aztertu dira, biak **zeharkakoak eta ingurumenarekin lotuak**; 8 pertsona hauek hartu dute parte:

Víctor Arans López	Javier Chaves
Carlos Dorronsoro	David González Sánchez
César Izar de la Fuente	Luis López Castro
Xavier Marrero	Aitor Miguel
Eduardo Ochoa de Aspuru	Jon Ruiz de Infante

Bideratzailea: *Gregorio Ballesteros*

14. helburua. URAREN KUDEAKETA: Baliabide hidrikoak zentzuz kudeatzea, nekazaritzako elikagaien sistemako aktore guztien arteko adostasunez.

Neurri zehatzak

Parte-hartzaileek **31 neurri zehatz** proposatu zituzten elikadura prozesuaren fase ezberdinetan baliabide hidrikoak **zentzuz eta adostasunez kudeatzeko**.

14. helburua: Uraren kudeaketa

1. Ur-masen babesa

- **Ebapotranspirazioa minimizatzea** ibai eta erreketan.
- **Ur-kontsumoa gutxitzea etxeetan eta lorategi eremuen ureztaketan.**
- **Kontzejuak kuadrillatan elkartzea**, saneamendu sistemen kudeaketa eta mantentzea hobetzeko.
- Ur-masen **eutrofizazioa** eragiten duten agenteak **desagerraraztea**.

14. helburua: Uraren kudeaketa

2. Laborantzarako ur-kontsumoa optimizatzea

- Ur-kontsumoak labore ezberdinetan duen **eragina diagnostikatu** eta ebaluatzea.
- **Tokiko klima baldintzetarako egokiak diren laboreak** sustatzea eta ur-kontsumo handiegia dutenak saihestea.
- Ur-kontsumo **eraginkorra duten landatze-sistemen** diseinuari buruzko **prestakuntzarako laguntzak** ematea.
- **Lurzoruaren estalkiak** erabiltzea eta **gehiegizko aldapak** saihestea.

3. Ureztatzeko erabilgarri dagoen ur-kopurua handitzea

- Ahal den guztietan, **huri-ura** erabiltzea.
- Gasteiz hegoaldeko ibaien **ur-soberakina nekazaritzarako erabiltzea**.
- **Lizentziak ematea** ura baltsa txikitan biltzeko.

4. Elikadura Estrategiarekin lotutako ureztatze plan bat lantzea

- IKTen bidezko **ureztatze-sistema adimentsuak** ezartzea.
- **Ur- eta energia-kontsumoa murrizten** duten ureztatze-sistemak sustatzea.
- **Ekoizle txikiek** ureztatze-sistemak eskuratu ditzaten erraztea.
- **Uraren prezioa murriztea eraginkortasun handienaz** erabiltzen dutenei.

14. helburua: Uraren kudeaketa

5. Uraren kudeaketa elikadura estrategian

- Uraren prozesu osoa **zuzenean administraziotik kudeatuta**.
- Prozesuaren elementu bakar bat ere ez esku pribatuetan.
- Eraginkorra eta efektiboa den kasuetan, **erakundeen arteko akordioa** uraren kudeaketa partekatzeke.
- **Ura ondasun komunitario gisa**.

18. helburua. ENERGIA: Energia-kontsumoa gutxitzea fase guztietan.

Neurri zehatzak

Taldeak 24 neurri proposatu zituen elikadura prozesuaren fase ezberdinetan **energia-kontsumoa murrizteko**. Horietako batzuk **61eko zerrendan** ere agertzen ziren, eta beste batzuk, **berariazko neurri** gisa; bi kasuetan, taldean sortutako proposamen guztiak jasotzea erabaki da, multzokatuta eta ordenatuta.

18 helburua: Energia

1. Instalazioetan energia-eraginkortasuna sustatzea

- Ahal dela **egun-argia** aprobetxatzea.
- Progresiboki **LED luminariak** sartzea.
- Ahal den instalazioetan, **presentzia sentsoreak** jartzea.
- Energia auditoretzak egitea, eraginkortasun eta aurrezpen neurriak ezartzeko.
- Energia-eraginkortasunerako neurriak diruz laguntzea eta horretan inbertitzea.

18 helburua: Energia

2. Ustiapen txikietan energia berriztagarrien erabilera bultzatzea

- **Haize-ponpen, eguzki-lehorgailuen eta energia hidraulikoaren erabilera sustatzea.**
- Energiaren **autokontsumoa** sustatzea, **biomasa eta biogas** planten bidez.
- **Nekazaritzarako makinerian bioerregaiak** erabiltzea, eta Eusko Jaurlaritzak nekazaritzako kontsumo txikiko makineria diruz laguntzea.
- **Berriztagarrien alorreko araudia aldatzea.**
- **Garraioa minimizatzea, gertuko produktuak kontsumituz.**
- Eusko Jaurlaritzak **nekazaritzako kontsumo txikiko makineria** diruz lagundu dezan.

3. Energia aurrezpena eta energia berriztagarrien erabilera sustatzeko neurriak

- Zergak murriztea elikagaiak ekoizteko energia berriztagarriak erabiltzen direnean.
- **Energia fosilen erabilera zigortzea.**
- Sektoreko garraio eta banaketarako energia berriztagarriak erabiltzea
- **Ureztatze-sistemetan energia berriztagarriak ezartzea.**
- Ureztatze-sistemetan **energia-eraginkortasunari buruzko azterlanak** egitea, hobekuntza-proposamenak egiteko.
- Energia **gehiago kontsumitzen** duten produktuak **zergen** bidez garestitzea.
- Energia merkaturatzeko sistemak era komunitario eta kooperatiboan kontratatzea, eta horren portzentaje handi bat jatorria berriztagarriena izatea.

3.3. 3. TALDEA: GIZARTE AITORPENA

3. lan-taldean 11 pertsonak hartu dute parte, eta **19. helburua –ekoizpen fasekoa–** aztertu dute:

Aitor Buendía	Ángel Fernández de Labastida
Roberto González Argote	Mónica Ibarondo
Idoia Jalón	Edurne Ortún
Beatriz Rosales	

Bideratzailea: *Carlos Verdaguer*

18. helburua. GIZARTE AITORPENA: Elikagaien ekoizlea duintzea, lanbideari gizarte aitortzea emanaz.

Aurretzako gogoetak:

Helburua lortzeko neurri posibleak zehazten hasi aurretik, taldeak hausnarketa bat planteatu du: ea ekoizlearen aitortzea oro har planteatu behar den, hau da, **edozein motatako nekazariarena**, edo ea **nekazari mota jakin**, bat izan behar duen, parte hartzeko prozesuan lantzen ari diren irizpideekin bat etorkeena, alegia, **nekazaritza ekoizpena elikagai osasuntsu, ekologiko, lokal eta osasungarritzat jotzen duen nekazaria, ez merkantzia hustzat.**

Eztabaidaren bi muturrak honela formulatu daitezke eskematikoki:

- Mutur batean, dikotomia hau planteatzen da: nekazariaren figura **orokorrean** hartzen bada, azkenean **"agrobusinessa"** baliatuko da lortutako ospeaz, bai eta nekazaritzaren **autoestimu eza, ikusezintasuna** eta **ospe txarra** ekarri duten praktikak ere. Ikuspuntu horretatik, parte-hartzailearen batek ospe txarra **merzeria dutela** esateraino iritsi da, eta **nekazari mota berria** sustatzea dela kontua.
- Beste muturrekoek diote, ordea, **nekazariaren figura oro har goraipatzen** bada, beste edozein lanbide bezain duin eta desiragarritzat joz, **nekazaritza lehen lekuan jartzen** lagunduko duela horrek, eta

horretan jarduteko erarik egokienari buruz **irekitako hausnarketa eta eztabaida** ere bultzatuko.

Polarizazio horretatik nolabait ateratzeko aipatu da ezin dugula ahaztu helburua **nekazaritzako elikagaien strategiaren berariazko testuinguruan** planteatu dela eta gainerako helburuen bidez dagoeneko **nekazaritzaren ikuspegi ezberdina** moldatzen ari dela, eta **elikadurarena** oro har.

Edonola ere, ez da ondorio garbirik atera, eta eztabaidak irekita jarraitzen du.

Neurri zehatzak

Helburua gauzatzeko **ildo eta neurri zehatzei** dagokienez, taldeak hainbat proposatu ditu, parte-hartzaileetako batek proposatutako lehenen pean bildu daitezkeenak: "**Aitortzeko lehenengo ezagutu egin behar da**" :

19 helburua: Gizarte aitortpena

1. HEZIKETA: Gizarte aktore guztiak nekazarien zereginaren garrantziaz kontzientzia harraraztea hezkuntza arautuaren fase guztietan.

- **Ikasleen bisitak** antolatzea inguruko ustiapen eredugarrietara.
- Eskoletan **nekazarien bisitak** antolatzea, beren lanbideari buruz hitz egin dezaten eta haur eta gazteentzat erakargarria izan dadin.
- Unibertsitatean eta Lanbide Heziketan **agroekologia ikasketak** sartzea.
- **Hezkuntza komunitate** osoa inplikatzeko laguntzea, **guraso elkarten** eta eskola kontseiluen bidez.
- **Herrietan eskolak jartzea** ahalbidetzea, ratioetan oinarritutako irizpideez haratago, jarduerak dibertsifikatzen eta landa guneetako gazteak errotzen laguntzarren.
- Praktika agroekologikoetarako **lantegiak** antolatzea.
- **Novia Salcedo fundazioaren Lanaldi programaren** antzekoak antolatzea, **nekazaritzarekin lotuta**; horren bidez, arlo jakin batean interesatuta dauden gazteak profesionalekin jartzen dira harremanetan lanaldi oso batean zehar.

19 helburua: Gizarte aitortpena

2. KOMUNIKAZIO ESTRATEGIAK: Nekazarien lana hedabideetan ezagutaraztea

- **Komunikazio kanpainak** egitea tokiko hedabide eta sareen bidez (publizitatea, erreportajeak, ikastetxeak, etab.), lehen sektorea **sektore estrategiko eta berritzaile** gisa aurkezten laguntzeko, etorkizunari begira ari dena eta iraunkortasunerako funtsezkoa, haren balioa ez baita produktibitatearekin bakarrik lotzen, baizik eta gizarte kultura eta ingurumen balioekin.
- Sektorean bikaintasuna sustatzeko **sariak eta bekak** sortzea.
- Profesionalak elikadura osasungarri eta iraunkorraren funtsezko elementu gisa agerrarazteaz gain, **ingurunea mantentzearen arduradun** gisa ere agerraraztea, bai nekazaritza balioena bai **paisaia** balioena, baina modan oinarritutako irtenbide kosmetikoen ('itxurakeria' hutsa) arriskua saihestuz (adib.: BBVA).
- **Nekazaritza elikagaien katea** elkarren artean lotuta dauden osagaien multzo gisa **ikusaraztea**.

3. AHALDUNTZEA: Nekazariak ahalduntzea, sektore estrategiko batean funtsezko aktore gisa duten garrantziaz ohartu daitezen lagunduz

- Nekazariei **bitartekoak** eskaintzea topaketa eta bilerak errazteko.
- Nekazariei nekazaritzako elikagaien sisteman nagusi diren botere erlazioez kontzientzia hartzen laguntzea. Eztabaidan aipatu da ezen, paradoxikoa iruditu arren, ahaldunduago daudela nekazari txikiak ustiapen handiez arduratzen direnak baino, azken horiek merkatuaren apeten mendekoagoak baitira.

19 helburua: Gizarte aitortpena

4. EMAKUME NEKAZARIAK: Emakume nekazariari profesionalizatzen laguntzea, landa eremuetan kontziliaziorako eta zereginak banatzeko bitartekoak eskainiz

- **Kontziliazio neurriak** ezartzea, umeen eta adinekoen zaintza banatu eta horretan laguntzeko, landa eremuan gaur egun ia eskusiboki emakumeen gainean uzten baita.
- **Landa eremuan ekipamenduak** (haurtzaindegiak, eskolak, eguneko zentroak, etab.) jartzea, kontziliazioa eta zereginen banaketa errazteko.

5. LEGERIA: Legerian eta ordenantzetan ekoizle txikiak babesten lagundu dezaketen aldaketak sartzea

- **Ekoizle txikiei hiriko merkataritza-gune handien** lehiari aurre egiten laguntzeko neurriak ezartzea (adib. Lakuan).

6. DIBERTSIFIKAZIOA: Herrietan ekonomia dibertsifikazioa sustatzea, "lo-herriak" bihurtu ez daitezen

- **Herrietan askotariko jarduerak** (gertuko merkataritza, **hezkuntza, kultura eta aisialdi ekipamenduak**, etab.) ezartzeko neurriak jartzea, landa eremuko biztanleria sendotzen eta hazten eta tokiko nekazaritza garatzen laguntzeko.
- Landa eremuan **lurrak eta etxebizitzak eskuratzen** laguntzea.

7. IDENTIFIKAZIOA: tokiko produktuen eta ekoizleen identifikazioa sustatzea

- Elikagaien **etiketan** ekoizlearen identitatea gertukotzat islatu dadin sustatzea.
- **Tokiko ekoizleen merkatuak** bultzatzea (udala, Eusko Jaurlaritza).
- Elikagaiak gizarte eta toki identitateko balioekin lotzea.

3.1. 4. TALDEA: ELIKADURA IKERKETA ETA TRAZABILITATEA

4. lan-taldean **10 pertsonak** hartu dute parte. Zehazki:

Antton Alza	Sugoi Auzmendi
Vicente Briñas	Pedro Calvo Liciaga
Arantza del Canto	Kike Fernández de Pinedo
Maite Lacuesta	Joserra Mauleón
Patricia Uranga	Carmen de Vega

Bideratzailea: *Iciar Montejo.*

Taldean helburu hauek landu dira:

- **12. helburua: ELIKADURA IKERKETA:** Nekazaritzako elikagaien katearen fase bakoitzarekin lotutako ezagutza hobetzea.
- **21. helburua: TRAZABILITATEA:** Ekoizle-banatzaile-merkatari kateari buruzko eta produktuari buruzko informazio-sistema bat sortzea.

Helburu horiek lortzeko neurri zehatz hauek aipatu dira:

12. helburua. ELIKADURA IKERKETA: Nekazaritzako elikagaien katearen fase bakoitzarekin lotutako ezagutza hobetzea.

Medidas específicas

12 helburua: Elikadura ikerketa

1. Ekoizleek dituzten beharren eta egiten diren ikerketen arteko konexio handiagoa, ikuspegi praktiko batekin:

- **Ekoizleen eta ikerlarien arteko komunikazio eta harremanetarako kanal normalizatuak sortzea:**
 - Dauden beharrak eta egiten diren ikerketak konektatzeko: elkartzea, hurbiltzea eta konektatzea.
 - Ikerketetan lortutako emaitzak formatu erraz, komunikatibo eta praktiko batean azaltzea.
 - Nekazarien eta abeltzainen epeak kontuan hartzea.
 - Alderdi ukiezinak aintzat hartzea: beldurrak, mesfidantza, estereotipoak...

2. Egiten diren ikerketen plangintza koordinatua:

- **Sektoreko agenteen arteko plangintza koordinatua:** Hazi, Neiker, aldundiak, unibertsitateak, nekazari sindikatuak...
- Gaur egun **ezjakintasun** handia dago batzuek eta besteek egiten dutenaz. Proiektu isolatu eta deskoordinatuak dira.
- Elikadura gai estrategikoa dela jakitun, lidergo handiagoa - Eusko Jaurlaritzaren mailan- behar da arloan. Euskal industriaren eta teknologia eta ikerketa zentroen arteko konexioa eta ezagutzaren transferentzia har daitezke eredutzat.

21. helburua. TRAZABILITATEA: Ekoizle-banatzaille-merkatari kateari buruzko eta produktuari buruzko informazio-sistema bat sortzea.

Medidas específicas

21 helburua: Trazabilitatea

1. Hasteko, tokiko merkatuan dagoen eskaintzaren azterketa azkarra eta, aldi berean, sakona:

- **Zer eskaintzen da** Gasteizko janari dendetan? Zer da nagusi merkatuan?
- Oro har merkaturatzen diren produktuen **trazabilitatearen azaleko ezagutza**: non eta nola ekoitzi diren, non eta nola eraldatu diren, non eta nola banatzen diren...

2. Elikagaiak identifikatzeko sistema orokorra diseinatzea

- **Nahitaezkoa eta kontrolatua** elikagai guztientzat: ogia, fruta, barazkiak, lekaleak, haragia, produktu landuak...
- Identifikatzeko **etiketa** batez.
- Elikadura katearen faseen arabera **informazio garrantzitsua** zehazten duena:
 - Ekoizpena: jatorria, ekoizteko modua (ekologikoa, konbentzionala, produkzio integratua...), biltegiatze mota, sasoikotasuna.
 - Eraldaketa: eraldatzeko lekua eta modua (artisaua, industrialia...)
 - Banaketa.
- Orain dauden identifikazio sistemak **hobetzen eta batzen dituen** sistema bat. Adibidetzat Iparraldeko etiketatzea aipatzen da.
- Garrantzitsua da sistema **serio eta kontrolatua** izatea, komunikazio-kanpaina jakinetatik haratago joango dena. Horren harira, berriki Arabako produktuez egindako komunikazio-kanpaina aipatu da: "Arabakoa da"; kanpaina baliozkoa da, baina helburu bakartzat marketina duena.
- Sektorean hasten ari diren profesionalekiko sistema **atsegina**.
- Zerikusia duten agenteen **partaidetzarekin** sortutako sistema.
- Tokiko ekoizleen datu-base batean edo **informazio-sistema oso** batean oinarritutakoa (tokikotzat zer jotzen den definitu beharko litzateke, zein distantzia hartu behar den kontuan).

21 helburua: Trazabilitatea

3. Kanal laburren sustapena, elikagaiei buruzko ezagutza handitzeko

- Kontsumitzaileek ekoizten dena **zuzenean eta gertutik ezagutzea** ahalbidetzen du.
- Elikagaien **eskaintza eta eskaera hurbiltzea** ahalbidetzen du.
- **Bitartekarien eragina minimizatzen du**, horiek batzuetan birsailtzaile aritzen baitira.

4. Araudi lagungarriak garatzea

- Estatuan, ekoizle txikien osasun-erregistroekin lotutako izapideak eta burokrazia malgutzeko dekretu bat lantzen ari da.
- Eusko Jaurlaritza ere ekoizle/eraldatzaile txikien aldeko jarraibideak lantzen ari da.
- Beraz, **legegintzan bada joera positibo bat** eskala txikian tokiko elikagaien ekoizpena eta eraldaketa garatzen laguntzeko.
- Horrekin lotuta, ikusi beharko litzateke **tokiko araudiek** -udal eta aldundi mailan- joera hori osatu eta aldeztu lezaketen.

5. Kontsumitzaileen sentsibilizazioa

- Aipatutako neurriak osatzeko, **kontsumitzaileak informatu** beharra dago elikagaiak identifikatzeko sistemaren balioaz eta egitekoaz.
- Gainera, interesgarria litzateke:
 - Arabako **sasoien mapa** diseinatzea.
 - Terminoen **glosarioa** zabaltzea: zirkuitu laburra, ekoizpen sistemak...
 - **Elikagaien araberako informazio kanpainak** diseinatzea, esterako, arrautzen zenbakien esanahiari buruz egindakoaren antzera. Kanpaina horiek iruzurrak ekiditeko ere balioko lukete, esate baterako, jatorriaren eta ontziratze-lekuaren arteko bereizketa (adibidez, Perun ekoitzi eta Nafarroan ontziratzen diren zainzuriak).

21 helburua: Trazabilitatea

6. Kontsumitzaileei elikagaien prezioari buruzko berariazko prestakuntza ematea:

- **Elikagaiak ekoizteak duen kostuari buruzko prestakuntza:** ekoizpenak zenbat balio duen ikusarazi eta horretaz sentsibilizatzea. Elikagaien kostuaren arrazoiak, horren atzean zer dagoen ikusaraztea.
- **Elikagaien kontsumo eta erabilera kontzientea** lortzeko azalpenak eta prestakuntza ematea, espiritu kritikoaz sustatuz: "erosketa-saskia ekintza politiko esanguratsuenetako bat da".
- Elikagaien erabilera egokia –esate baterako, olioarena– erakusteko espazioak, eraginkortasunez erabiltzeko eta, horrenbestez, kostuak aurrezteko.

4. Amaierako osoko bilkura

Taldetako lana bukatu eta Slow Food Araba elkarteak eskainitako mokadu goxoa dastatu bitartean atsedean hartu ondoren, lantegiaren eta partaidetza-prozesuaren fase honen amaierako osoko bilkura egin zen.

Hasiera batean, osoko bilkura **bi zati** bereizitan egitea **programatuta** zegoen: bata, jarraibide proposamenak aurkezteko; bestea, estrategia lantzeko gerora eman beharreko urratsak aztertzeko. Hala ere, azkenean **bat egin zuten biek** eztabaidaren dinamikak berak hartaratuta.

Hori, **logikoa** izateaz gain –jarraibideen proposamen teknikoa strategiaren hurrengo urratsei heltzeko modu posibleetako bat besterik ez baitzen– **positiboa** izan da, parte hartzaileek argi azaldu ahal izan baitituzte beren kezka eta itxaropenak, oso era organiko eta artikulatuan.

Ondoren, teknikari taldeak iradokitako jarraibideak azaltzen dira, eta proposamenari zein estrategiarako hurrengo urratsei buruzko eztabaidaren emaitzak.

4.1. Teknikari taldearen proposamena: helburuak batzea

Aurkezpenean azaldu zen bezala, lantegian ateratako 21 helburuak ekintzarako ildo nagusi edo jarraibide batzuetan batzeko proposamenak oinarri eta helburu hauek zituen:

- Prozesuan egindako elkarlanaren emaitza berez **kalitate eta konplexutasun tekniko handikoa** da, eta berez konplexua den esparru batean, alegia, nekazaritzako elikagaien sisteman, dimentsio eta interes ugari baititu.
- Hilabete hauetan lantegian parte hartu duten ehun pertsona inguruk landutakoa **herritarren sektore handiago bati komunikatzeko prozesua** errazteko beharra ikusten zen, planteatutako helburuen arteko kidetasun agerikoenak eta horien arteko sinergia posibleak bilatuz.
- Hori dela eta, **dekalogo bat komunikazio helburua lortzeko lagungarria** izan zitekeela pentsatu zen, kutsu proposatzaile eta proaktiboa baitu; garrantzitsuena ez zen alde zuzenetik ezarritako jarraibide kopuru batera mugatzea, baizik eta, esan bezala, gainjartzeak eta sinergiak identifikatzea, landutako informazioa moldagarriagoa bihurtzen laguntzeko.
- Talde teknikoa jakitun zen ezen, bateratze horietako batzuk **nahiko agerikoak** iruditu arren, beste batzuetan batzeko egindako hautua **irizpide pragmatiko hutsetan** oinarritzen zela, eta aukera bat baino gehiago zegoela. Hortaz, **ezinbestekotzat jotzen zen osotasunaren eztabaida eta baliozkotze kolektiboa** une oro.
- Edonola ere, eta halaxe azaldu zen aurkezpenean, partaidetza-prozesuak **benetan legitimatutako** lana **21 helburuak** identifikatzea eta, batez ere, horietako bakoitzarentzat **berariazko neurriak** garatzea izan da, eta azkenean aukeratzen den batasun edo sintesi prozesuak nahitaez egiaztapen horretatik abiatu behar du.

Helburu eta oinarri horiek aintzat hartuta, talde teknikoaren proposamena aurkezten da ondoren, 21 helburuak jarraibideen dekalogo gisa batzeko:

Gasteizerako nekazaritza elikagaiei buruzko dekalogo

1. JARRAIBIDEA: Bertako produktuetan eta produktu ekologikoetan oinarritutako hornikuntza publikoa sustatzea.

<p>1 JANTOKI PUBLIKOAK</p> <p>Elikadura hobetzea ikastetxe eta jantoki kolektiboetan, produktu lokal, ekologiko eta gertuko presentzia nabarmen handituz.</p>	<p>KONTSUMO ETA BAZTERKETA FASEA</p>
<p>13 HORNIKUNTZA PUBLIKOA</p> <p>Hornikuntza ekologiko eta lokalaren aldeko konpromiso publikoa bermatzea</p>	<p>ERALDAKETA, BANAKETA ETA MERKATURATZE FASEA</p>

2. JARRAIBIDEA: Nekazaritzako elikagaien katearen fase guztiak lotzen eta elikadura-ohitura jasangarriak bultzatzen laguntzen duten merkataritza ekimenak eta herritarren sareak sustatzea.

<p>2 EKIMEN SAREAK</p> <p>Eraldatzaileak, banatzaileak eta merkatariek konektatzen dituzten ekimen sareak sustatzea, formula ezberdinak eta lankidetzarik ikuspegia kontuan hartuz</p>	<p>ERALDAKETA, BANAKETA ETA MERKATURATZE FASEA</p>
<p>20 EGITASMOAK SUSTATZEA</p> <p>Administratibotik elikadura eta kontsumo ohitura jasangarriak, arduratsuak eta abar sustatzen dituzten herritar-ekimenak, kolektiboak eta sareak abian jartzea ahalbidetzea</p>	<p>KONTSUMO ETA BAZTERKETA FASEA</p>

3. JARRAIBIDEA: Lur publiko eta pribatuen bankuak sortu eta kudeatzea, sektorean ekoizle berriak sartzerik izan dezaten.

<p>3 LUR BANKUAK</p> <p>Ekoizle berriei lurra erabiltzeko aukera ematea: Gasteizko herri orotan lur publiko eta pribatuen bankuak sortu eta kudeatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Erabilera publikoko lurretan (luberriak), herri-lurretan (administrazio-batzen eta Udalaren lurra), udal jabetzako hiri edo hiri inguruko lurretan. - Jardunbide agroekologikoekin lotuta. - Baita hiri inguruan ere. <p>Administrazio-batzen ordenantzak doitzea eskatzen du</p>	<p>PRODUKZIO FASEA</p>
---	------------------------

4. JARRAIBIDEA: Hirigintza arauak berrikusi eta egokitzea, nekazaritza lurra babesteko eta udalerrian nekazaritza eta abeltzaintza instalazioak jartzea errazteko.

<p>4 ARAUAK BERRIKUSTEA</p> <p>Arauak (hirigintza-arauak zein beste batzuk) berrikusi eta egokitzea, Gasteizko udalerrian nekazaritza eta abeltzaintza instalazioak jartzea errazteko.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nekazaritzarako lurra babesteko duen araudia. - Gasteizko herrietan landetxeak instalatzea ahalbidetuko duen araudia. - Sentsibilizazioa, herrietan landetxeen eta auzokoen arteko bizikidetzaz errazteko. 	<p>PRODUKZIO FASEA</p>
<p>8 LURZORUAREN BABESA</p> <p>Lurzorua babestea, funtsezko tresna eta baliabidea baita, plangintzaren eta legeriaren bitartez haren degradazioa (higadura, gehiegizko ustiapena...) eragozteko</p>	
<p>10 HIRIGINTZA</p> <p>Hirigintzari eta auzoen kudeaketari buruz hausnartzea, eraldatzeko eta merkaturatzeko instalazio txikiak eta merkataritza alternatibo eta malgua kontuan hartu ahal izateko</p>	<p>ERALDAKETA, BANAKETA ETA MERKATURATZE FASEA</p>

5. JARRAIBIDEA: Elikadura ohitura osasungarriak eta ekologikoki arduratsuak sustatzea, bai eta bertako produktuen eta produktu ekologikoen eskaera eta kontsumo arduratsua ere.

<p>5 GIZARTEAREN ESKAERA</p> <p>Gizartean produktu lokal, ekologiko, iraunkor eta kalitatekoen eskaera eta kontsumoa handitzea.</p>	
<p>16 OHITURA ARDURATSUAK</p> <p>Informazioa eta prestakuntza, elikadura- eta kontsumo-ohitura arduratsuak, kontzientek eta jasangarriak ezartzen laguntzeko.</p>	<p>KONTSUMO ETA BAZTERKETA FASEA</p>
<p>7 ELIKADURA POBREZIA</p> <p>Elikadura pobrezia desagerraraztea eta xahuketa eragozteko.</p>	

6. JARRAIBIDEA: Biodibertsitatea mantentzen eta handitzen laguntzen duten nekazaritzako elikagaien praktikak sustatzea, bai eta baliabideen kontsumoa eta hondakinen emisioa murrizten laguntzen dutenak ere, landetxe mistoen kopurua handituz eta produkzioa dibertsifikatuz.

<p>6 AGROEKOLOGIAREN SUSTAPENA</p> <p>Gasteizko herri orotan jarduera agroekologikoetara -irizpide sozialak dituen nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa- emandako landetxe eta ekoizleen kopurua zein lur azalera nabarmen handitzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nekazaritza eskolak mobilizatzea eta ikasleak nekazari profesionalekin harremanetan jartzea, praktika ikas dezaten. - Prestakuntza eta ezagutza espezializatua garatzea. 	
<p>17 LANDETXE MISTOAK</p> <p>Lehen Gasteizko herrietan zeuden nekazaritza eta abeltzaintzako landetxeak berreskuratzea eta ekoizpena dibertsifikatzea, bai eta permakultura baliatuz ere.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elikagai mota gehiago ekoiztea: barazkiak, zerealak, arrautzak, fruta-arbolak, basa fruituak..., bai eta loreak eta landareak ere. - Zikloen itxiera sustatzea (animalien hondakinak materia organiko gisa erabiliz soroetan); landetxe orekatuagoak eta ingurunearekiko errespetu handiagoa dutenak. - Sargaiak murriztea. 	<p>PRODUKZIO FASEA</p>
<p>9 BIODIVERSITATEA</p> <p>Biodibertsitatea sustatzen duen nekazaritzako elikadura / nekazaritza eta abeltzaintza ereduaren alde egitea</p>	
<p>18 ENERGIA</p> <p>Energia-kontsumoa gutxitzea fase guztietan, baliabideak optimizatu eta emisioak gutxitzearen</p>	<p>FASE GUZTIAK (ZEHARKAKO HELBURUAK)</p>
<p>14 URAREN KUDEAKETA</p> <p>Gestionar los recursos hídricos de forma racional y consensuada entre todos los actores del sistema agroalimentario</p>	

7. JARRAIBIDEA: Erakundeetatik elikagaien saltoki txikiei laguntzea, horiek elkartzea eta koordinatzea erraztuz, bai eta ekoizle, merkataria eta kontsumitzaileen prestakuntza eta horien arteko hurbiltasuna ere.

<p>11 SALTOKI TXIKIAK</p> <p>Saltoki txikiei laguntzea</p>	<p>ERALDAKETA, BANAKETA ETA MERKATURATZE FASEA</p>
---	--

8. JARRAIBIDEA: Hondakinak nekazaritzako elikagaien katearen fase guztietan murriztea, haien kudeaketa planifikatuz eta materia

organikoaren balorizazioa eta konpostatzea sustatuz, produkzio-zirkuituan berriro sartzeko.

15 HONDAKINEN KUDEAKETA

Sortutako hondakinak murriztea fase guztietan, eta hondakin organikoak konposterako berrerabiltzea

FASE GUZTIAK
(ZEHARKAKO
HELBURUAK)

9. JARRAIBIDEA: Elikagaien ekoizlearen figura gizartean duintzea, antolaketa era berriak sustatuz eta sektorean ezagutzen transmisioa bermatuz.

19 GIZARTE AITORPENA

Elikagaien ekoizlea duintzea, lanbideari gizarte aitortpena emanez.

- Sektorea antolatzeko modu berriak (oporrak hartzeko aukera ere izateko).
- Sektorean ezagutza transmisioa bermatzea

PRODUKZIO
FASEA

10. JARRAIBIDEA: Informazioa, hezkuntza eta ikerketa sustatzea nekazaritzako elikagaien katearen fase guztiekin lotuta.

21 TRAZABILITATEA

Ekoizle-banatzaille-merkatari kateari buruzko eta produktuari buruzko informazio-sistema bat sortzea

ERALDAKETA,
BANAKETA ETA
MERKATURATZE
FASEA

12 ELIKADURA IKERKETA

Nekazaritzako elikagaien katearen fase bakoitzarekin lotutako ezagutza hobetzea (ikerketa, hezkuntza, kontzientziazioa)

FASE GUZTIAK
(ZEHARKAKO
HELBURUAK)

Eztabaidan -hurrengo atalean islatzen dira ondorioak- agerian geratu zen batze hori balidatzeko prozesuak denbora gehiago behar zuela, eta parte-hartzaileei aurretik bidali behar zitzaizela horren berri emateko. 21 helburuen zerrendan oinarritutako jarraibideak lantzea prozesuaren hurrengo faseari dagozkion zereginetako bat da, zalantzarik gabe.

4.2.Eztabaida eta ondorioak: estrategiaranzko urratsak

Jarraibideen proposamena aurkeztu eta gero taldean horietaz hitz egin eta eztabaidatzeko tarte bat ireki da. Ondoren zehazten dira partekatutako hausnarketa garrantzitsuenak:

Jarraibide-proposamenari eta beste alderdi batzuei buruzko hausnarketak:

- **Zein da jarraibide-dekalogoaren helburua? Norentzat da?**
Prozesutik ateratako dokumentuaren lehentasunezko helburua komunikazioa ez bada, eta aldatzeko gaitasuna duten pertsonei zuzentzen bazaie bereziki, uste dut ez dela beharrezkoa informazioa jarraibideetan batzea. Nire ustez, nahikoa da partaidetza-prozesuan proposatutako 21 helburuen zehaztasuna.
- **1. jarraibidea. Bertako produktuetan eta produktu ekologikoetan oinarritutako hornikuntza publikoa sustatzea.**
Proposamena: ekitaldi publikoak berariaz eranstea. Keinu txikiak baina garrantzitsuak dira. Prozesuan bertan ikusi dugu: hasieran marka ezagun bateko gozokiak genituen mahai gainean, eta bukatzeko Slow Food kolektiboaren tokiko produktuen dastatzea izan dugu.
- **Zalantzak 10. jarraibidearen inguruan: Informazioa, hezkuntza eta ikerketa sustatzea nekazaritzako elikagaien katearen fase guztiekin lotuta.**
Uste dut horren esanahia zehatz-mehatz azaldu behar dela. Bestetik, uste dut 12. helburua ("nekazaritzako elikagaien katearen fase guztiei buruzko ikerketa") eta 21. helburua ("trazabilitatea") ez dagozkiola auzi berari eta ez deritzot egoki jarraibide berean elkartzeari. Edukiak zaintzea komeni da.
- **Oro har, uste dut jarraibideak oso bideratuta daudela arlo ekologikora.**
Prozesuan, ordea, tokiko elikagaiak, gertukoak, iraunkorrak, ekologikoak... aipatu dira, ezer baztertu gabe.
- **Elikadura Kontseiluaren beharra.**
Inplikaturako agenteak eta udala elkarren artean koordinatzeko eta parte hartzeko espazioa litzateke Elikadura Kontseilua. Nekazaritzako elikagaien strategiaren garapena jarraitzeaz arduratuko litzateke, estrategia udaleko sailetan nola txertatu aztertzeaz, etab.
- **Garrantzitsuena proposatutako neurriak eta geroko kontrola eta jarraipena dira; gainerakoa -dekalogoa eta jarraibideak- antolatzeke modua da.**
Estrategiaren garapenean proposatutako ekintzen eta neurrien jarraipena izango da gako.

Jarraibide-proposamenari eta beste alderdi batzuei buruzko hausnarketak:

- **Eraldaketaren ideia ez galtzea.**
Diagnostikoan ikusi zenez, Gasteizko prozesuaren ahulguneetako bat da eta, beraz, indartu beharrekoa.
- **Elikagaien politika sakabanatu baten aurrean, jarraibideen proposamenean sailarteko lanaren eta erakundearen koherentziaren beharra berariaz aipatzea falta da.**
Helburu bakoitzerako proposatutako neurrietan zeharka sortu diren alderdiak izan arren, orokorrean sailarteko lanaren eta erakundearen koherentziaren beharra berariaz aipatzea falta da.
- **Zein izango da strategiaren aplikazio-eremua? Gasteiz? Araba?**
Prozesuan hausnartu eta mintzatu denaren atzean bio-eskualdearen kontzeptua dago. Hori jarraibideen aurkezpenean zehazten ez den arren, ikuspegiaren eta egindako planteamenduen azpian dago. Bestetik, sareak nola osatu eta strategiaren proposamenak aldundira ez ezik Arabako beste udal batzuetara nola zabaldu plazaratu da.
- **Eskaintza eta eskaera hurbiltzeko erronkan, kontsumoaren ikuspegia lantzea gakoa da.**
Nekazaria naizen aldetik, eta sektorea pixkanaka eraldatzeari begira, kontsumitzaileak sentsibilizatu eta hezteko ahalegina egin behar dela uste dut. Kontsumitzaileen aldetik eskaera handia balego sektorea egokituz joango litzateke, eta horri erantzuteko urratsak eginez.
- **Elikadura pertsona bakoitzaren eskukoa da.**
Dena ez dago udalaren esku, pertsona bakoitzak aukeratzen baitu zer erosi. Ausardia kontua da.
- **Partaidetza-prozesua interesgarria izan da, eta orain?**
Partaidetza-prozesua eta gogoeta eta eztabaida kolektiboa positibotzat jotzen ditut. Lan baliotsua egin dela uste dut, eta espero dut paperean ez geratzea.

Ahots eta gogoeta ezberdinak entzun ondoren, **teknikari taldeak proposatu du bazter uztea** taldean landutako 21 helburuak 10 jarraibidetan biltzeko dekalogo baten bidez antolatzeko ideia. Taldea horren alde agertu da, uste dutelako egindako elkarlanaren indarra 21 helburuetan eta neurri zehatzetan dagoela. Horretaz gain, aipatu da nekazaritzako elikagaien estrategia

iraunkorra idazteko azken prozesuak esango duela edukia egituratu behar den ala ez.

Bestetik, talde-solasaldian, **IGIko taldeak ere gogoetak partekatu ditu, bai eta eman beharreko hurrengo pausuen xehetasunak ere.** Zehazki, alderdi hauek aipatu dira:

- **Prozesua ez da bukatu, oraindik bide luzea dugu aurretik.**
Udako hilabeteetan, IGIk Gasteizko nekazaritzako elikagaien estrategia iraunkorrari buruzko agiria idatziko du, eta Elikaduraren X. Gizarte Topaketaren barruan aurkeztuko du, irailean.
- **Partaidetza-prozesutik sortutako indarra, energia eta ilusioa errespetatuko dira.**
Dokumentua idazterakoan partaidetza-prozesuaren esentzia eta emaitzak errespetatzeko konpromisoa hartzen du IGIk. Ikuspuntu komunikatibotik ere landuko dute, agente gakoan atxikipen eta konpromiso gehiago lortzeko.
- **Une egokian gaude.**
IGItik adierazten duten bezala, Udalean "aire berriak" daude, eta horren isla dira Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aurrerapenean egiten ari diren proposamenak. Gasteizko nekazaritzako elikagaien estrategia iraunkorraren alde urrats berriak egiteko agertoki egokian gaude.